


OCW

## IKASTEKO MATERIALA: 2.GAIA

### FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

#### 2.gايا. Euskadi mailan familiari laguntzeko finkatu diren lege eta planak.

- 2.1. Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea; Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea; 24/2008ko EAEn deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneen Dekretua (2011ko aldaketekin); Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana.
- 2.2. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZA HAU IZANGO DA:

Familia-orientazioan E.A: E.-n garrantzitsuak diren lege eta planei buruz jakitun egotea lortuko da

## 2.gaila. Euskadi mailan familiari laguntzeko finkatu diren lege eta planak.

- 2.1. Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea; Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea; 24/2008ko EAEn deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneen Dekretua (2011ko aldaketekin); Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak hiru lan-arlo ditu: Gizarte Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarteratzea eta Familia Politika eta Aniztasuna (ikus <http://www.euskadi.eus/enplegu-eta-gizarte-politiketako-sailaren-lan-arloak/web01-s2enple/eu/>). 2017.eko urtetik sail horri dagozkio (ikus <http://www.euskadi.eus/familia-politika-eta-gizarte-garapena-zuzendaritza/web01-a2famil/eu/>) hainbat zeregin, hona hemen batzuk:

- Politika publikoetan familia- eta komunitate-ikuspegia sustatzea, eta honako hauei buruzko politikak planifikatzea, koordinatzea eta ebaluatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan: familia, haurtzarora, nerabezarora, immigrazioa eta aniztasunaren kudeaketa. Zehazki, eta, betiere, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean ezarritako moduan
- Pertsona Bitartekarien Erregistroa eta Izatezko Bikoteen Erregistroa kudeatu eta mantentzen du, Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legeari jarraik.
- Beste zereginetako bat da Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana lantzea, garatzea eta ebaluatzea. Egun IV. Plana dago martxan, 2018-2022 aldirako.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren **Lana eta Justizia sailak** daramatza deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak (ikus <http://www.euskadi.eus/albistea/2018/familia-elkarguneak-2017an/web01-s2lanju/eu/>). Elkargune hauek, 124/2008ko EAEn deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneen Dekretuak erregulatzen ditu.

Beraz, jarraian ikusiko ditugu Euskadiko Politikan familia afektatzen duten lege, dekretu eta planak. (Oharra: Erreferentzia bibliografikoetan daude estekak).

### 13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa [1]

Legeak esaten duena jarraituz, helburu nagusietako bat da familia-eredu sendo bat bultzatzea, autonomian oinarrituta, familiako pertsona guztien arteko errespetua egonik, bikote-kideen arteko berdintasunean eta lanbidean aurrera egiteko aukera berberak dituztela.

Lau titulu ditu lege honek eta hauxek dira:

- a) I. tituluaren legearen xedea eta zertarakoa eta aplikazio-eremua arautzen dira, baita ere familia-politikaren oinarritzko balioak eta printzipio inspiratzaileak; bertan agertzen da baita erakundearen arteko koordinazioa nola emango den, besteak beste.
- b) II. tituluaren, familiei laguntzeko neurriak eta zerbitzuak erakusten dira, bost kapitulutan; honela, ardurapean seme-alabak dituzten familientzako laguntzak zehazten dira, norbere bizitza, familia eta lana konpatibilizatzeko laguntza ekonomikoak argitzen dira, administrazioan familiari laguntzen dabilten zerbitzu guztiak biltzen dira, etab.
- c) III. tituluaren, familia-arloko eskumenak nola antolatzen diren hiru administrazio-mailen artean arautzen da.
- d) IV. tituluaren erakunde-antolaketa garatzen da, Familiaren Euskal Kontseiluaren eta Familiaren Behatokiaren artean.

Lege honetan familiei gizarte-zerbitzuen arloan laguntzeko berariazko neurriak, adibidez hauxek: 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolak sendotzea; ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, terrorismo-ekintzak jasan dituzten familiek eta genero-indarkeria jasan duten familiek lehentasuna izango dute onarpen-sistemako puntuaketan; bestelako laguntza-neurri osagarriak ere hartuko dira, curriculumetik aparte, norberaren bizitza, familia eta lana uztartu ahal izateko gizonen zein emakumeen eta hezkuntza-garai guztietan eskola-jantokien zerbitzu osoa bermatuko da; eskola-bitartekotza sustatuko da; eskolen eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen arteko jarduera koordinatuak bultzatuko dira, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu bat bultzatuko da familientzat, garapen afektiboaren eta hezkuntzaren arloko arazoetarako eta beste gai batzuetan sor daitezkeen gatazketarako, etab.

Familiaren Behatokia dago legeari esker eta bere helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren errealitatea, egoera eta problematika ez ezik familiari laguntzeko 13/2008 Legea aplikatuz garatutako politiken inpaktua ere behin eta berriro aztertzea. Eginkizun zehatzak dira, familia-errealitateari buruzko azterketa- eta ikerketa-ildo bat bultzatzea, etxeko indarkeriako egoeren errealitatea eta bilakaera ezagutzea, autonomian, Estatuan, Europan eta nazioartean gai honi lotutako literatura zientifikoa biltzea eta lege honetan eta familiei laguntzeko erakunde arteko planean azaltzen diren neurriak benetan aplikatzen diren ikustea, besteak beste.

#### Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea [2]

*"Bitartekaritza, azken batean, prozedura bat da. Prozedura horretan inpartzialak eta arloan adituak diren hirugarren pertsona batzuek esku hartzen dute auzia duten aldeei laguntzeko, haien arteko gatazkari adostutako irtenbidea eman diezaioten"* (3208. orr).

Bitartekariari dagokionez, hona hemen jakin beharreko kontu batzuk:

- Bitartekaria profesional espezializatua, inpartziala eta independentea da
- Gatazka duten aldeek eskatuta arituko da

- Euren arteko komunikazio-bideak irekitzeko asmoa izango du
- Negoziatio-prozedurak eskainiko ditu

Familia Bitartekaritza nortzuk erabili ahal izango dutenari buruz, hemen dituzu zerrendatuta zenbait puntu garrantzitsu:

- Bikotea, senar-emazteak nahiz izatezko bikoteak, hausten denean sortzen diren gatazkak
- Familia-ingurunean gerta daitezkeen beste gatazka-egoera batzuk
- Gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak
- Familia biologikoaren eta harrera-familiaren arteko gatazkak
- Mantenua dela-eta senideen artean sortzen diren gatazkak
- Gurasoek aitona-amonei ilobekin harreman normalizatuak izatea galarazteagatik sortzen diren gatazkak
- Negoziatioak edo familiako negoziatioak direla-eta familietan sortzen diren gatazkak, etab.

Familia-bitartekaritza zerbitzu publikoa da, eta zerbitzu publiko eta sozialek bideratuko dute, betiere arlo honetan egin daitezkeen ekimen pribatuei kalte egin gabe. Administrazio publikoek bermatuko dute herritarrak familia-bitartekaritza baliatu ahal izatea (ikus informazio gehiago <http://www.euskadi.eus/familiabitartekaritza/>). Familia bitartekaritza zerbitzuak Gasteizen, Bilbon eta Donostian daude.

Familia bitartekari izateko prozedura ondokoa da: Gizarte Hezkuntza eta/edo beste titulazio batzuk izan behar dituzu gehi 200 orduko ikastaro homologatua Eusko Jaurlaritzak esaten duen tokietan. (ikus informazio gehiago <http://www.euskadi.eus/familiabitartekaritza/>). Ondoren, erregistrora bidaltzen duzu zure informazioa (ikus informazio gehiago <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205324e.pdf>) eta lanean aritzeko prest daudenen zerrenda agertzen da (ikus zerrenda: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mediacion\\_familiar\\_f/eu\\_medfami/adjuntos/PAX%20MEDIADORAS%20DICIEMBRE%202018%20EUSK.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mediacion_familiar_f/eu_medfami/adjuntos/PAX%20MEDIADORAS%20DICIEMBRE%202018%20EUSK.pdf))

[124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen \[3\] \(ondoren bere 2011.eko egunerapena\)](#)

Hona hemen Familia Elkargunearen ezaugarriak:

- Espazio neutral eta egokia da
- Krisi egoeran dagoen edo, gizarte-hezkuntzazko jarraipen- eta laguntza-zerbitzua behar duen familia bateko kideen arteko topaketa lekua da
- Bere erabilera ebatzen judizial bidez izango da
- Gizarte-zerbitzuak dira Familia Elkarguneak

- Aldi baterako harremanak bermatu eta erraztera bideratzen dira.
- Egoerak izan daitezke: Banatze egoerak, dibortzioak, deuseztasun edo izatezko neurriak erregulatzeko prozesuen ondoriozko egoerak, seme-alaben eta gurasoen, tutoreen edo zaintza duen pertsonaren, aitaren, amaren edo inguruko pertsonen arteko harremanen artekoak...
- Familia Elkarguneetarako baldintza izango da zaintza edo tutoretza duen pertsona, edo pertsona adingabea, Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- Ez du inolaz ere sartuko Familia Elkarguneetan harremanak edo bisitak izateko eskubidea judizialki etenda badago.
- 

Familia Elkarguneen erabiltzeak ondoko hauek izango ahal dira, ebazpen judizialak horrela ezartzen badu (hau da, egoera hauetakoren batean dauden haur eta nerabeak):

- Bikote-hausturagatik etorri diren gatazkak eta bisita-araubidea betetzearekin loturiko arazo larriak dauden familia bateko kide badira
- Genero-indarkeria egoeretan, urruntzeko eta biktima babesteko neurriren bat indarrean bada, edo izapidetze-bidean bada
- Ebazpen judizial bidez erabakitako bisita-araubidea betetzeko edo haur eta nerabeei laguntzeko bertara jotzen duten pertsona helduak eta baimenduak.

Doakoak dira zerbitzuak eta ematen den zerbitzuen tipologiari dagokionez, babestutako bisitak, ikuskaritzarik gabeko bisitak zentroan, Familia Elkargunetik kanpoko bisita babestuak, trukeak eta laguntza ematea dira.

Babestutako bisitak: Zentroko langilearen ikuskaritzapean egiten dira, momento guztietan bertan izango da langile hori agintari judizialak horrela eskatu duenean.

Ikuskaritzarik gabeko bisitak zentroan: zuzeneko ikuskaritzarik gabe edo zentroko pertsonalaren uneoroko presentziarik gabe egiten dira.

Familia Elkargunetik kanpoko bisita babestuak: Puntualak izaten dira eta posible dela, egokitzeko fasean, hots, ikuskaritzarik gabeko bisitak egin aurretik izaten dira.

Trukeak: Familia Elkarguneak haurrak eta nerabeak hartu eta jasotzen direla ikuskatzeko bakarrik erabiltzen dira eta bisita zentrotik kanpo egiten da.

Laguntzak ere ematen dira: Familia Elkarguneetako profesionalak lagundu egingo du haurra edo nerabea bere ama edo aita tutorea edo zaintzailea, baimendutako harremana duten bestelako senide edo ahaideak dauden espetxera, ospitalera edo erresidentziara, betiere hauek ezin badira Familia Elkarguneetara joan.

Orientazio psikologikoa eta soziala erraztuko dute Familia-Elkarguneek. Zelakoak dira baina orientazio-funtzioak?

- Aitamen eta seme-alaben arteko harremanen hobekuntza sustatzea

- Amek eta aitek akordioak ezartzean egokitzen zaizkien ardurak beren gain hartzea ahalbidetzea, eta akordio horiek betez, euren adingabeko seme-alabekiko komunikazio eta bisita araubideari dagozkienak.
- Horrela behar denean, zerbitzu hauek Familia Elkarguneak erabiltzen dituzten haurren eta nerabeen eta tutorea edo zaintzailea edo bestelako senide edo ahaideen arteko harremanak hobetzea sustatuko dute.

Bertan lan egiten duten profesionalak dagokionez, gutxienez psikologo bat, gizarte langile bat eta bi gizarte hezitzaile egongo dira, euren esku-hartzean funtzio sozioedukatiiboak eta famili orientabidekoak betetzeko behar den prestakuntza duten profesionalak edukiko dituzte.

124/2008 Dekretuaren aldaketak hauek dira, hitz gutxitan (239/2011 DEKRETUA, azaroaren 22koa) [4]:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 39.2 artikuluan xedatuari jarraitzen dio
- Justizian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak du ardura orain
- Familia Elkarguneak ondoko printzipioen arabera zuzenduko dute euren jarduna: Inpartzialtasun printzipioa, autonomia printzipioa, parte hartzeko printzipioa, normalizazio printzipioa, arreta pertsonalizatuaren printzipioa, profesionalizazio printzipioa, koordinazio printzipioa, kooperazio printzipioa eta behin-behinekotasun printzipioa.
- Biztanle asko duten udalerriak lehenetsiko ditu, dagoen eskaerari erantzuteko

Non daude Elkarguneak? 2017. urtean, 6 familia-elkargune zeuden, Bilbon, Donostian, Gasteizen, Barakaldon, Portugaleten eta Durangon (ikus <http://www.euskadi.eus/albistea/2018/familia-elkarguneak-2017an/web01-s2lanju/eu/>).

#### Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana [5]

Plan honen arrekaria III. Plana eta Familia eta Haurtzaroaren Aldeko Euskal Ituna dira. Plan honetan hainbat erakundek parte hartu du, hala nola, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Kultura Sailak, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Zuzendaritzak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak, Osasun Sailak, Ogasun eta Ekonomia Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sail, Kultura Sailak, Hezkuntza Sailak, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, Lan eta Justizia Sailak, Gazteria Zuzendaritzak, Emakundek, EUDEL-ek. etab. luze batek.

IV. Planak bost ardatz handi ditu eta helburu estrategikoak. Ardatzak hauek dira (43. eta 44. orrietan daude):

- 1. ardatza. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea.
- 2. ardatza. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta semealabak zaintzeko ardura partekatua erraztea.
- 3. ardatza. Familiei laguntzea.
- 4. ardatza. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea.
- 5. ardatza. Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza sustatzea.

Helburu estrategikoei dagokionez, hemen dituzu batzuk ardatzez ardatz:

1. ardatza. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea, enplegua lortzea, gazteei bideratutako enplegu-politika aktiboak indartzea, gazteei kalitatezko enplegua lortzeko aukerak eskaintzea, etxebizitza eskuratzea eta seme-alabak dituzten pertsonen eta gazteei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea.
2. ardatza. Kontziliazioa, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren artean eta ardura partekatua erraztea seme-alabak izanez gero, denbora sozialaren antolaketa egokiagoa sustatzea (gurasoek beren seme-alabentzako denbora guztia izateko), gurasotasun positiboa eta atxikimendu segurua sustatzea, semealabak hazteko guraso-trebetasunak eskuratzea sustatzea, familiei zailtasun-egoeretan laguntza eskaintzea, etab.
3. ardatza. Familiei laguntzea, seme-alabak eukiz gero laguntza ekonomikoa eta haurpobreziaren prebentzioa, seme-alabak dituzten familientzako gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea eta haur-pobrezia prebenitzea, familia-aniztasuna, familia-forma eta -lotura guztiak sostengatzea eta babestea, eta belaunaldien arteko harremanak sustatzea, haurrentzako arreta ematea, ume guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu irisgarriak, eskuragarriak eta kalitatekoak hartzeko aukera izan dezaten ahalbidetzea.
4. ardatza. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea, haurtzaroarekin lotutako arazoetako detekzio goiztiarra bultzatzea eta arreta goiztiarreko zerbitzuen garapenean aurrera egitea, ohitura osasungarrien sustapena eta osasunerako eskubidea, haur osasuna esku-hartze integralen bidez sustatzea, ekitatea hezkuntzan, babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoeren prebentzioa eta eskuhartzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa (baita genero-indarkeriak haur eta gazteen gainean dituen ondorioak ere), gazte-delinquentziaren prebentzioa eta adingabe arau-hausleentzako arretaren hobekuntza, haurren parte-hartzea eta haurren eskubideen sustapena, zerbitzu soziokulturalen eta gizarte- eta hezkuntzazerbitzuen garapena sustatzea, eta haur eta gazteei eta, bereziki, egoera okerragoan daudenei, aisiaz, kirolaz eta kulturaz gozatzeko erraztasunak ematea.
5. ardatza. Familiaren eta haurtzaroaren arloko politikaren esparruan egituratutako zerbitzu eta laguntzen informazioa ematea eta gizarte kontzientziaztea familian eta haurtzaroan inbertitzeko politikak garatzeko premiaren inguruan. Baita, lidergo- eta koordinazio-esparru garbia ezartzea autonomia-erkidegoaren eta lurraldearen mailan eta tokiko mailan, eta benetako gizarte- eta hezkuntza-espazioaren egituraketa bultzatzea.

## 2.2. Erreferentzia bibliografikoak

### 1. Taula. Familia afektatzen duten zenbait lege, dekretu eta plan eskuragarri

LEGEAK, DEKRETUAK ETA PLANAK	ESKURAGARRI NON?
[1]Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea	<a href="http://www.juslan.ejgv.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807144a.pdf">http://www.juslan.ejgv.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807144a.pdf</a>
[2]Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea	<a href="http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/ley/bopv200801004/eu_def/index.shtml">http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/ley/bopv200801004/eu_def/index.shtml</a>
[3]24/2008ko EAEn deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneen Dekretua	<a href="https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf">https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf</a>
[4](aldatua puntu batzuetan 239/2011 DEKRETUA, azaroaren 22koarengatik)	Aldaketak hemen: 239/2011 DEKRETUA, azaroaren 22koa: <a href="https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2011/12/1105796e.pdf">https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2011/12/1105796e.pdf</a>
[5]Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana	<a href="http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/20_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/EAEko%20Familiei%20Laguntzeko%20Erakunde%20Arteko%20IV%20Plana%202018_2022.pdf">http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/20_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/EAEko%20Familiei%20Laguntzeko%20Erakunde%20Arteko%20IV%20Plana%202018_2022.pdf</a>